



## Lagun zaharren eta herrikideen esker ona jaso du Manuel Lasartek

**LEITZA** ▶ Omenaldia, erakusketaren inaugurazioa, bazkaria eta bertso saioa izan ziren, besteak beste ▶ 7



## Kultur eta osasun gune berria inauguratu dute

**TXARAMA** ▶ Sendagilearen kontsulta, gizarte laguntzailearen bulegoa eta balio anitzeko gela hartuko ditu eraikinak ▶ 6



Manuel Lasartek berak ere bertsoak oparitu zizkien ekitaldira joandakoei. J. ASTIBIA

**TOLOSA** ▶

## Inauterietako sariak jakitera eman dituzte

Sari banaketa, ostiralean ▶ 3

**TOLOSALDEA-LEITZALDEA** ▶

## FC Barcelonako Didac Ortegak irabazi du III. Aiztondo Klasikoa

Mikel Nieve leitzarrak oso proba ona egin zuen eta laugarren sailkatu zen ▶ 4



Mikel Nieve. I. OTEGI / ARGAZKI PRESS

**TOLOSA** ▶

## Hegoaldeko berrito irabazi du Usabalen

Majadahondaren aurka 4-0 egin du ▶ 2

## ARETO FUTBOLA ▶



Hegoalde areto futbol taldea entrenamendu saio batean. HITZA

## Hegoalde hiruugarren garaipena lortu du jarraian Usabalen

Majadahonda talde madrildarraren aurka lau gol egin dituzte, honela zerrendako goiko postuei begira jarritz

## NEREA URBIZU

Azken asteburuak onak izan dira Hegoalderentzat: jada hirugarren garaipena jarraian lortu dute tolosarrek, areto futboloko Emakumezkoen Espainiako Ohorezko Mailan. Madrillgo Majadahonda taldearen aurka lehiatu dira asteburuan.

Hutsean utzi zituzten madrildarrak tolosarrek, etxekoek lau gol sartu baitzituzten. Majadahonda taldea ez zen ongi aritu: animo gutxirekin etorri ziren Usabal kiroldegira, eta berdin joan ziren, ez baitaude sailkapenean ondo kokaturik: zerrendan hamabigarren daude 16 taldetatik.

Tolosarrek 8. lekuan daude

jada, aurrekoetatik 5 puntutara. Beheko postuetatik alden du direla argi dago; oraindik ere Ligan aurreko postuetan geratzea posible ikusten dute.

## Hegoalderen progresioa

Gogoratzekeoa da Hegoalde areto futbol taldea ez zela finegi hasi, baina bigarren itzulian beste talde bat dela dirudi. Lehen itzulian 14 puntu lortu zituen 15 partidatan, eta dagoneko 12 puntu batu dituzte 5etan. Ez ziren ongi ibili Liga hasieran, baina hobetzen hasiak dira: ezin ahaztu arestian esan bezala, azken hiru partidak irabazi egin dituztela.

Hurrengo partida Valencia

FFS taldearen aurka izango dute neska tolosarrek. Zerrendan 7 punturekin azken doana izan arren, ez da ahaztu behar haien aurkako Ligako lehen neurketan, azaroan, Hegoalde galdu egin zuela: 6-2 izan zen orduan emaitza.

Hegoaldekoek hiru tanto lortzeko aukera bikaintzat hartzen badute ere, ez dute arreta eta kontzentrazioa galdu nahi, futbol partidetan edozer gerta baitaiteke.

Ligan lehenengo CD Futsi Navalcarreno da, eta Mostolesek jarraitzen dio. Hauetatik urrun badaude ere —54 puntu ditu lehenak eta 51 puntu bigarrenak—, aurreko postuetan amai dezake Hegoalde.

## SASKIBALOA ▶

## Interrautonomikoan ezin izan dute liderra garaitu

Seniorrek galdu dute, kadeteak Federazio Txapelketan irabazle eta infantilak derbian

## N. URBIZU

Interrautonomiko mailakoek jokatu dute asteburu honetan Gasteizen, eta ezin izan dute irabazi. Hainbat arrazoi egon dira hori horrela izateko: Gasteizko Jorge Fernandez Cericas taldea liderra izateaz gain, Tolosa Aralar taldeak 5 baja izan zituen. 78-54koa izan zen emaitza.

Federazio txapelketa ere jokatu zuten besteen artean, kadeteen mailan. Tolosako taldeak irabazi zuen, 57 punturekin, BKL CAF arerioak 48 egiten zituen bitartean.

Bestalde, infantil mailako bi talde tolosarrak ere lehiatu zi-

ren asteburuan: Tolosa Argysan B eta Tolosa Argysan A. Azkeneko hau izan zen garaile 91 tanto lortuz. B taldeak 22 lortu zituen.

Hurrengo larunbateko partidak hauek izango dira: Interrautonomiko mailakoek, 18:00etan, Usabalen, Jarrileros aurkari izango dute. Kadeteek federazio txapelketan 12:00etan jokatu dute, Intxaurrendon Internazionalen kontra. Azkenik, infantiletan, Usabalen, 10:30ean, Tolosa Argysan A-k Bergara izanen du aurrez aurre. 13:00etan Urretxun ariko dira Tolosa Argysan Bkoak, Goierri taldearen aurka.

## ARETO FUTBOLA ▶

## Laskorainek garaipena eskuetan, galtzen amaitu

Partida borrokatua egin dute santurtziarren aurka, baina azken momentuan galdu dute

## N. URBIZU

Bolada txarrari ezin bukaerarik eman horitxoek: 4-3 galdu zuten Santurtziko Inauterietan. Oso partida ona egin zuten, baina zorte txarra izaki, galdu egin zuten azken momentuan.

Oso berdindua izan zen partida, borrokatua. Lehenengo zatian bina amaitu zuten, Saldias eta Murgi goleatzaile izanik. Gol hauek egon arren, lehen 15 minutuetan ez zen gol aukera handirik egin.

Bigarren zatian, ordea, Sal-

diasak tolosarren azken gola sartu zuen, eta gehiago egiteko aukera egon bazen ere, ez zuten asmatu. «Punteria konfiantzak ematen du, puntuialdada fisikoak eta senak. Bolada txarraren zama gainditzeko gauza hauek guztiak berreskuratu behar ditugu, konfiantza batik bat», Jabi delegatuak zioen bezala.

Santurtziarrek bi gol egin zituzten, honela garaipena lortuz. Azken bi minutuetan sartu zuten laugarrena. Tolosarrak saririk gabe bueltatu ziren, nahiz eta ongi jokatu.

## hilberria ▶

### Maria Segurola Odriozola

(Nikolas Urangaren alarguna)

Urrestillan, martxoaren 6an hil zen, 86 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

## —Goian bego—

Haren ahizpak: Josepa, Manuela eta Benita lekaimeak; seme-alabak: Mari Karmen eta Migel, Joxe zena eta Maria Jesus, Inixio eta Maria Pilar, Juanjo eta Nere, Felix eta Maritene, Manoli eta Leo, Olatz eta Jesus, Alejo, Vitoriano eta Presen, Marian eta Arantxa, Migel Mari; bilobak: Benjamin eta Belen, Sara eta Josu, Idoia eta Karlos, Marielis eta Boni, Amagoia eta Esti, Itzal, Irati, Maitane eta Ainhoa eta Jose Luis, Ander eta Rocío, Iñaki eta Aitzpea, Alain eta Esti, Itzal, Irati, Maitane eta Ander, Alaitz, Estibxu eta Asier, Oihana eta Gorka, Xuban, Julen; birlobak: Maider, Ane, Gorka, Eneko, Maren, Eithne, Mattin, Narkix, Oier, Julen, Ioritz, Oihana, Naroa, Eneritz eta Iruntza.

Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizue familiak. Elizkizuna, GAUR, arratsaldeko 19:30, Urrestillako parrokian egingo da. Aldez aurretik, mila esker.

URRESTILLA, 2006ko martxoaren 7a



Seme alaben ama biloben kuttuna Baserrian langile lagunena laguna Ezin ahaztu urtetan eman diguzuna Zure magal beroa ta goxotasuna... zuk ere gorde beti gure maitasuna

## hilberria ▶

### Simona Arrate Luluaga

(Timoteo Gabirondoren alarguna)

Gaztelun hil zen martxoaren 5ean, 81 urte zituelarik

Gabirondo baserriko izarra itzali egin zaigu berehala baina konturatuko gara aurrera ortzian, bat gehiago agertu dela

Zure senide eta ilobek maitasunez Arrospeide Arrate - Mintegi Arrate - Arrate Mujika sendiek

LIZARTZA-LEABURU, 2006ko martxoaren 7a



MERKATU TXIKIA ▶

# Nikaraguako emakumeak laguntzeko Elkartasun Azoka antolatu du Amaro ez elkarteak

Gaur hasi eta igandera bitarte Tolosako Kultur Etxean egongo da merkatua; dirua umetoki lepoko eta bularretako minbizia duten emakumeei bideratuko da



Iaz ere aritu ziren Amaro ez elkarteak Nikaraguako dirua biltzen, Kultur Etxean. JAIONE ASTIBIA

**NOELIA LATABURU**

Amarozko Auzo elkarteak antolatzen duen elkartasunezko Merkatu Txikia Nikaraguako umetoki lepoko eta bularretako minbizia duten emakumeentzako laguntza lortzeko izango da aurtengoan. Gaur irekiko ditu bere ateak Tolosako Kultur Etxean eta, igandera bitarte, bisitatzeko aukera izango dute herritarrek. Ordutegi zabal prestatu dute; hala, asteleheneetik ostegunera 16:30etik 20:00etara, larunbatean 10:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 20:00etara, eta igandean 10:00etatik 14:00etara egongo da zabalik.

Autoen kateak, arropak, altxariak, pitxiak, ontziak, idazmakinak, liburuak, diskoak, jostailuak, koadroak eta beste-lako materialak bildu dituzte Amaro ez elkarteak lokale-

an aurreko hilabeteetan, orain saldu ahal izateko. Azokara joaterik ez dutenek ere izango dute laguntzeko aukera, helburu honetarako Kutxan ireki duten kontu korronte zenbakian diru laguntza sartuz: 2101 0081 15 0124410788. «Ahalik eta diru laguntza gehien lortzea dugu xede, gaixorik dauden emakumeen tratamenduak dituen gabeziak asebetetzeko».

Urtez urte Amaro ez elkarteak Nikaraguako egoera hobetzen saiatzen da, Merkatu Txikiaren bitartez laguntza bideratuz. Nikaraguako emakumeen osasun egoerari eman nahi izan diote lehentasuna aurtengoan, «herrialde eremurik txiroeneko arazo larriak dauzkatelako, bai beharrezko sorospenari dagokionez, bai eta gaixotasunak osatzeko elikadurari dagokionez ere».

Minbizia dutenenentzat arazoa larriagoa da. Azkeneko datuen arabera, Nikaraguako Larreynaga-Malpaisillo eremuko emakumeen %5ek dute gaitza.

**Iaz, dirua formakuntzarako**

Mertxe Brosa izeneko emakumearen bitartez jarri dituzte laguntza kanpainak abian azken urteotan. «Bera ezagutu genuenetik era hauetako ekintzak antolatzen ditugu». Brosak Xochilt Acalit emakumeen zentroan egiten du lan, Nikaraguako Langileak adierazitakoaren arabera, «emakume asko ari da hiltzen; izan ere, kimio eta erradio tratamenduek ez dituzte behar guztiak asetzen, eta ebakuntza egin zain urteak egon behar izaten dute; hala, txanda iristen zaieneko egoera itzulezina egiten zaie». Baina ez dira hauek emakumeek ja-

san beharrezko arazo bakarrak. Hainbat eta hainbat emakume, tratamenduan dauden artean, bai eta ondorengo prozesuetan ere, diru eskasia dela-eta behar bezalako elikadura ezin dute lortu.

Iaz ere Nikaraguako emakume zentroa honetara bideratu zuten bildutako dirua eta, handik, esker ona erakutsi nahi izan zuten, eskutitz baten bitartez. «...Zuen elkartasunari esker aspaldian genuen proiektua errealitate egitea lortu dugu, Larreynaga - Malpaisillo lurraldeko emakumeen formakuntza akademikorako babesa, hain zuzen ere». Hori esker, jakintza teknikoak eta ideologikoak eskuratu ahal izan dituzte bertako emakumeek, bai eta Lehen Hezkuntza ikasketak burutu ere. Zehazki, 19 emakumei eragin die proiektua eta beste seiak Bigarren Hezkuntza ere ikasi dute.

Hau guztia pixkanaka lortzeko, ordea, herritarren parte-hartzea ezinbestekotzat jo dute antolatzaileek. Hori dela eta, dei berezia luzatu nahi dute egunotan Kultur Etxeraino hurbildu eta bertako produktua erosit, diruz laguntzeko.

INAUTERIAK ▶

## Karroza eta konpartsa lehiaketaren epaia, ebatzita

Bost mailetako sari banaketa ostiralean izango da udaletxeko aretoan, 20:00etan

**N. LATABURU**

Aurtengo Inauterietako karroza eta konpartsa lehiaketak baditu irabazleak; izan ere, izenak jakitera eman zituzten Festa Batzordeko ordezkariak, herenegun, Piñata Igandean. Honenbestez, honakoak izan dira irabazleak bost maila ezberdinetan: Karrozetan, *Tolosako poliki-roldegia trabuko*; plataformadun konpartsetan, *Tolosako estropadak*; konpartsen A taldean, *Lau ikurriña legionera*; B taldean, *Raxoi hegaldiak*; C taldean, *Bizkor*; eta D taldean, *Eusko sukaldari berriak*.

Sari banaketa hilaren 10ean, ostiralarekin, izango da, 20:00etan, udaletxeko batzar aretoan. Sarietuek txapela bana jasoko dute, zer sari den idatzita duela. Epaimahaia Tolosako Udalak eta Inauterietako karroza eta konpartsen lehiaketako ohiko parte-hartzaileen ordezkariak adostuta osatu zen. Guztira, bada, zazpi kideek erabaki dute epaia. Halaber, hauek parte hartu duten guztiei eskerrak eman nahi izan diete.

## Gipuzkoan 50.000 etxetara

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

**ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira**

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info • Tel.: 943 65 56 95

hilberria ▶


**Jose Luis Saez de Urbain Albizu**

Herenegun hil zen, 73 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Goian bego-

Haren emaztea: Cristina Gabilondo; seme-alabak: Txema eta Idoia Sukia, Mikel eta Isa Lara, Inigo eta Maider Zeberio; ilobak: Peru eta Beñat; anai-arrebak: M<sup>l</sup>Luisa eta Pedro Calvo, Teodoro eta Marisol Iparragirre; ezkon anai-arrebak: Dionisio eta Conchita Esnaola, Pabi eta Juli Exposito, Ana eta Pedro Margareto ( ) , Paco ( ) eta Conchita Imaz; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzela GAUR ASTEARTEA, arratsaldeko 19:00etan, Andre Maria Zeruruaren parroki elizan, gorpua bertan dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

oharra ▶ hil-bidea Beasaingo Goierrri bellategian dago  
Helbidea ▶ Nafarroa etorbidea, 2, 3.C

ORDIZIA, 2006ko martxoaren 7a



hilberria ▶

**Gabino Larrain Ordoki**

JAUNA

(Pilar Leteren alarguna)

Martxoaren 6an hil zen 86 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren

-Goian bego-

Haren animaren zuzendaria: Juan Jose Duran; seme-alabak: Miren eta Jose Luis Iriondo; ilobak: Ixiar eta Ane; anai-arrebak: Isidro eta Nieves Uroz, Anttoni Castelruiz (Lorenen alarguna), Begonia Lete eta Josexto Etxeberria; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzela GAUR, ASTEARTEA, arratsaldeko ZAZPIRETAN, ASUNTZION parroki elizan, egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

helbidea ▶ Jesusen Bihotzaren Zahar Egoitza  
oharra ▶ Gorputz laguntza bere familia artean egingo da

ERRETERIA, 2006ko martxoaren 7a



IKAZTEGIETA

Olaberriak emaitza bikainak lortu ditu Sydney-n

Zilarrezko domina bat eta bosgarren eta seigarren postuak eskuratu ditu

ERREDAKZIOA

Laire Olaberría bihurtzarik emaitza bikainak lortu ditu Sydney-n (Australia) jokatzeko ari den Pistako Munduko Kopan.

III. AIZTONGO KLASIKOA



Mikel Nieve -eskuinean- eta Pedro Garcia -bosgarrena- helmugara iristen. ANNA OJEDA / ARKADIAN PRESS

igotzerakoan indartsuena nintzen erakutsi dut. Zuzendariak indar gutxiak azkeneko mar...
Mikel Nieve «oso gustura» zegoen egindako lasterketarekin: «Ez nuen espero postu hori egitea. Uste baino hobeto joan zera.

Nieveren emaitza onak

Mikel Nieve «oso gustura» zegoen egindako lasterketarekin: «Ez nuen espero postu hori egitea. Uste baino hobeto joan zera.

Didac Ortegak irabazi du azken aldapan erakustaldia ginezez

Mikel Nieve leitzarrak oso proba ona egin zuen eta laugarren postua lortu zuen sailkapen orokorrean

IMANOL GARCIA

F.C. Barcelonako Didac Ortegak irabazi zuen Aiztongo Klasikoaren III. edizioa. Nagusiatsun osoz gailendu zen. Aiztongo

teko txirindulariak azkeneko aldipara arte itxaron zuen. Eduardo de Miguel (Bruesa) donostiarra Larraulgo helmugatik 400 metroara harrapatu eta pasatu zuen. Mikel Nieve

(Caja Rural) leitzarrak oso proba ona egin zuen eta laugarren postuan iritsi zen, irabazlearengandik 37 segundora. Ortegak garai zuen irabazteko aukerak zituela «Alkizara

iragarki laburrak

Kafe Nagusia, 13 VILABONA Tel. 943 69 68 56 mug. 616 93 17 88

Aduna. Bifamiliarra salgai. 150 m2 eta 60 m2-ko garajea. Kalitateko hermitaia. Lurak. Ehesagasti. 943 69 68 56.

38.800.000 pezeta. Vilabona. 90 m2-ko etxebizitza salgai. Eginak. Sukalde. 3 logia eta banugela. Bernia. 42.700.000 pezeta.

lursailarekin. Vilabona. 90 m2-ko etxebizitza salgai. Eginak. Sukalde. 3 logia eta banugela. Bernia. 42.700.000 pezeta.

txokoa lagunen Martxoak 11, larunbata 22:00etan Tolosako zezen-plazan

HITZako harpidedunen artean Tolosa 750 Fundazioak antolatutako SORKUN eta ANPARANOIA taldeen kontzerturako 10 sarrera zozketatuko ditugu.

Zozketan parte hartzeko deitu 943655695 telefonora, 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara. Deitzeke azken eguna: osteguna, martxoak 9. Tolosaldeko eta Leiztaldeko HITZaren harpidedunen ordaintzaileen artean zozketatuko astero.

TOLOSA MUSIKA

Sorkun eta Amparanoia zezen-plazan

Tolosaren sorreraren 750. urtemuga dela eta, pop-rockeko hainbat kontzertu antolatu dituzte. Horietatik lehenena datorren hilaren 11n (larunbata), gaueko hamarretan izanen da Tolosako zezen-plazan. Sarreraren prezioa 12 eurokoa izango da aldez aurretik erosita (Servikutxan, Kutxan-en eta Telekutxan), eta 15 eurokoa leihatilan erostea.

ALEGIA

I. Berto Paper Lehiaketa abian da Alegian

Alegiako I. Berto Paper Lehiaketa eginen dute. Antolatzaile Zazpi Astoren Gaietan bertsozaleen taldea da. Parte-hartzaileak taldeetan banatuak dituzte. 16 urtetik beharagokoak, eta adin horretatik goragoakoa. Hilaren 31n 18:30ean denak elkartuko dira Kultur Etxean eta gai batzuk emango dizkiete bertsoak egiteko.

TOLOSA

Humus talde tolosarra Bonberenean

Bonberenea gaztetzen aste honetan hainbat kontzertu entzun ahal izango dira. alde batetik, hilaren 9an, laukote katalan batek bisatuko du Tolosako Gaztetxea. 12rteve, hain zuzen, 20.30etik aurrera giroa egotea espero dute musikari hauekin. Haren laugarren diskoak entzun ahal izanen du hara joan denak. Larunbatean, berriaz, 22:30ean, denboraldi batez jo gabe egon den Humus talde tolosarra. Izazera hondarribarrak eta Andoaingo B taldea arto dira Bonbereneako eszenatokiaren jotoen.

Illustration of a person at a computer terminal. Text: Hobeto lan egiten da eskuak libre dituzula.

laster eskuratuko duzu DOAN ostalaritza gidarik osatuena

tolosaldeko, leiztaldeko eta gaineriko OSTALARITZA GIDA 2006. Includes images of a book and a smartphone.

Irtenbide Erraza zure negoziarako. Includes images of a camera and a smartphone. Text: Esku libreko kita, 0€, V360 Motorola, 10 zent/min, Tarifa bakarra.

LEABURU-TXARAMA ▶ GIZARTEA

# Txaramako kultur eta osasun gune berria inauguratu dute

Sendagilearen kontsulta, gizarte laguntzailearen bulegoa eta balio anitzeko gela izango ditu guneak; aurrera begira bertan ludoteka jartzeko asmoa du Udalak

INIGO TERRADILLOS

Herenegun inauguratu zuten Txaramako kultur eta osasun gune berria. Aurrerantzean, beraz, mediku kontsulta, gizarte eragilearen bulegoa eta balio anitzeko gela bilduko ditu guneak.

Aurkezpen ekitaldian izan ziren Jose Kruz Goñi Leaburu-Txaramako alkatea, Amalia Adurriaga kultur zinegotzia, Roman Ganzarain herriko sendagilea eta hainbat herritar. Herriko dantzariak eskainitako dantza saioarekin ekin zioten ekitaldiari eta, ondoren, Goñi alkateak hartu zuen hitza. Gune berriak dituen ezaugarriak azaldu zituen, eta herritarrek erabileraren ematera animatu zituen; «lehen bezala, aurrerantzean ere auzoko zentroa izatea nahi dugu, beraz, medikuaren kontsulta eta gizarte laguntzailearen bulegoa erabiltzeaz gain, balio anitzeko gelan auzokideak bildu eta kultur jarduerak egitea da helburua».

Alkateak hitz egin ostean, ekitaldian bildu zirenek eraikina ikusteko aukera izan zuten, eta ondoren lunch-a egin zuten.

Garai bateko eskola zenaren eraikinean dago kokaturik gune berria, eta hiru gelaz hornitua dago; sendagilearen kontsultan, asteartero izango da medikua, eta gizarte laguntzailea, berriz, asteazkeneko izango da bere bulegoa. Hirugarren gelan ekintza kulturalak antolatuko dituzte. Bestalde, 180.000 euroko aurrekontua izan dute egokitze lanek; Udalak jarri du gehiengoa, eta Alkateak, Jaurlaritzak eta Kutxak ere lagundu dute.

## Ludoteka ere bertan

Aurrera begira, ludoteka jartzeko asmoa dutela azaldu du Udalak. Izan ere, orain arte Leaburuko gazte gelan egiten zuten ludoteka, baina orain balio anitzeko gela erabili ahal izango dute Txaraman ere zerbitzu hori eskaintzeko.




Goian, alkatea azalpenak ematen; behean, mokadutxo hartzen. HITZA

IBARRA ▶ ARETO FUTBOLA

## 5-6 galdu du Ibarrek Deportivo Alaves-en aurkako

Ibara-Uzturpe kadeteak euren taldeko txapel-dun bilakatu dira azken partida irabazi ostean



**Lizartzako Udala**  
**IRAGARKIA**

2006ko Martxoaren 6ko, 44 zenbakidun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, A-1-2, A-2, A-4-6 eta A-7 Industrialdeko eremuetan Lizartzako Arau Subsidiarioen Berrikuspenak izandako Funtsezko Aldaketein Lehen Onarpenari buruzko iragarkia argitaratu da, bera, jendaurrean jartzen delarik, 30 eguneko epean, alegazio edo erreklamazioak egin ahal izateko. Dokumentua Lizartzako Udaleko Idazkaritzan aztertu ahal izango da, lanegunetan, bulego ordutegiz, hau da, asteleheneetik ostiralera, goizeko Statik eguerdiko 14,00ak arte.

Lizartzan, 2006ko martxoaren 6an.  
**ALKATEAK**  
Joseba Egibar Artola

ERREDAKZIOA

«Zorte txarra izan zuen larunbatean Ibarra areto futbol taldeak Deportivo Alaves EHU Araba taldearen aurka Belabietan kiroldegian jokatu zuen partidari: izan ere, porrota baino askoz ere gehiago merezi zuela erakutsi zuen». Hala adierazi du Ibarrekoren prentsa arduradunak, Jose Manuel Tobias Romerok.

13. minutuan sartu zuten arabarrek lehendabizikoa, eta bi minutu geroago bigarrena. Atsedendira iritsi baino lehenago, ordea, Ibarrek bi gol egin ahal izan zituen. Bigarren zatian ere bi gol eginez hasi ziren aurkariak, baina Ibarrek berdinketaren golak sartu zituen berrit. Ondorengo 2 golak Deportivo sartu zituen, eta Ibarrek bakarra baino ezin izan zuen sartu. 5-6, beraz, azken

markagailua. Hori bai, aprobe txatu gabeko penalti bikoitzak eta hainbat zutoin izan ziren; «zorte txarra» nagusi izan zuten, beraz, ibarrek.

Bestalde, Ibarra-Uzturpe kadeteak euren taldeko txapel-dun bilakatu dira. Larunbatean jokatu zuten azken partida Donostiako Mariaren Lagundia taldearen aurka, eta 5-8ko emaitzarekin garaitu zituzten ibarrek.

iragarki laburrak ▶

### LANA

**Tabernaria.** Anoetan, neska euskalduna behar da tabernan 4 orduz lan egiteko. Eskarmentua duena. Interesatuak deitu 635 74 52 91 telefono zenbakira.

### SALGAI

**Etxebizitza.** Tolosan etxebizitza salgai. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Igoailuarekin. Interesatuak deitu 652 72 14 95 telefono zenbakira.

### Furgoneta.

Citroen Berlingo. 2003koa. 30.000 kilometro. **Oso egoera onean.** 635 73 63 75. **Autoa.** Seat Toledo. Diesela, 110 zaldi. 2002koa. Deitu 628 54 91 45 zenbakira.

GAZTELU ▶

## Peruren inguruko argazki proiektioa etzi

Peruko Cuzco hiriko Hattun Sonccowasi aterpetxeari buruzko argazki proiektioa izango da ikusgai etzi, 20:00etan, Gazteluko herriko elkartean. Ainhoa Arregik eskainiko du saioa; izan ere, belauntzarra iazko udan, lan-kidetzat programa baten barruan, eskolarik ez duten haur eta gazteekin aritu zen lanean.

LEABURU ▶

## Bihar izango da tutorearen bisita KZgunean

Bihar izango da tutorearen bisita Leaburu-Txaramako KZgunean. 09:00etatik 13:00etara izango da bertan tutorea erabiltzaileen zalan-tzak argitzeko. Halaber, *Euskara ziberespazioan* mintegia ere eskainiko du tarte horretan.

TELEFONOAK ▶

### Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarraldea.** Osasun ebea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**

- ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
  - ▶ San Esteban: 006800
  - ▶ Gernikako arbola: 006900
  - ▶ Amaroizko dispen.: 672637
  - ▶ Asunzioz klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
  - ▶ DYA: 672536
  - ▶ Gurutze Gorria: 674888
  - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
  - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
  - ▶ Donostiako autobusa: 361740
  - ▶ Tolosaldea bus: 650621
  - ▶ Leitzaran autobus.: 948 221015
  - ▶ Taxia: 670420
  - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
  - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675885
  - ▶ Tolargi: 650016
  - ▶ Iurrumendi egoitza: 670325
  - ▶ Tolosa gasa: 675320

LEITZA ▶ KULTURA

# Manuelekin, goxo

Omenaldia eskaini diote Manuel Lasarteri bere herrikideek: ekitaldi xume baina hunkigarria; lehengo lagun zaharrek elkarrekin jolasean aritzeko aukera izan dute

JAIONE ASTIBIA



Aureskua dantzatu zioten unean Lasarte erdi-erdian. JAIONE ASTIBIA



Erakusketan, 1975eko omenaldiko irudiaren aurrean. J. A.



Euskal Ohorezko Makila eta Leitza eta Franki baserriaren argazki-muntaia oparitu zizkieten herrikideek Lasarteri. J. ASTIBIA



Igandea sentimentuz betetako eguna izan zen leitzarrentzat. Aspaldiko partez, Manuel Lasarte herrira etorri eta herrikideengandik omenaldia jaso zuelarik, aspaldiko lagunekin egoteko beta ere izan zuen: egun osoan hurbildu zitzaizkion omenduari hango eta hemengo lagunak eta urtetan ez ikusi arren, ikusterako ezagutu eta diasola egin eta eskua kentzeak erabatekoak izan ziren.

«Leitza ez daukala ahazteko» esan ohi du Lasartek doan tokira doala eta igandean ederki aski frogatu zuen hori. Izan ere, bere herrikideekin igaro zuen egun osoan zehar hango etxeko eta hemengo baserriko, haren guraso eta honen seme-alabak... denak ezaugu ez ezik haien historia ere jarraitzen duela frogatu zuen.

Familiaz inguratuta, serio itxuraz, leitzarrengandik Euskal Ohorezko Makila eta Leitza herria, Franki bere sortetxea eta berak egindako bertso bat irudikatuta zituen argazki-muntaia jaso zituen, Auresku eta bertso artean Lasartek. Ekitaldian hitza hartu zuen berak ere, eta esker onezko hitzak eginez, une batzuk lehentxeago kantatu zien Erletako bertso eskolako ikasleak gogoan, lehen eta orain bezala, gero ere bertsoak bizirik iraunen duela ziurtatu zuen.

Erakusketari bisitaldia egin ondoren, Lasarterekin bazkaltera ehun lagun bildu ziren. Bazkalondoko bertso saioan, Egaña eta Lizasok zehaztu zutenenez, «mendiak ere biren jantzirik politenarekin esnatu ziren egunean», elurrez zuri, herriarrengandik opariak jaso zituen hark eta bertso pare bat oparitu zituen guztientzat, une oso hunkigarriak bizituaraziz.

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47-behea  
TOLOSA  
Tel.: 943 65 50 37  
Fax: 943 65 09 44  
e-mail: ennio@inmoennio.com  
www.inmoennio.com

**Tolosa.** Erdikaldean eraikuntza berriko etxebizitzak. 3 eta 4 logelekin, terrazak. Sukalde ekipatuak. Garajeekin.

**Tolosaldea.** Martxan dagoen taberna-jatetxea alokairuan. Informazio pertsonala.

**Alegia.** 2 logela eta 2 bainugela. Trastelekua. 40 m<sup>2</sup>-ko terraza. Estreinatzeko, guztiz berritua izan ondoren.

**Amezketza.** Etxe atxikia salgai.

**Belauntza.** Eraikuntza berriko etxe bifamiliarra. 462.780 euro.

**Asteasu.** 250 m<sup>2</sup>-ko etxe bifamiliarra, eraikuntza berrikoa!

**Bidanía.** Eraikuntza nahiko berriko

etxe bifamiliarra salgai, oso egoera onean.

**Hernalde.** Etxe bifamiliarr ederra salmantan. Eraikuntza nahiko berria.

**Ibarra.** Etxe adosatua salmantan. Oso egoera ona.

**Ibarra.** Garaje ibxi eta irekiak salgai.

**Ibarra.** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Dena kanpoaldera.

Berokuntzarekin. Bizitzera sartzeko moduan. 210.355 euro.

**Ibarra.** Euskalerría kalea. Oso egoera onean. 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela.

Berokuntzarekin.

**Irura.** Oso berezia. Eraikuntza nahiko berria. 80 m<sup>2</sup>. 2 logela, egongela-

sukaldea bixiniarekin, bainugela.

Trastelekuarekin.

**Gabiria.** Paraje ederrean, eraikuntza berriko etxe bifamiliarra.

**Legorreta.** Eraikuntza nahiko berria. 2 logela eta 2 bainugela. Berokuntza eta trastelekuarekin.

**Tolosa.** Alde Zaharrean hainbat etxebizitza salgai 168.285 eurotik aurrera.

**Tolosa.** Zezen-plazan. 87 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza berritzeko, igogailuarekin.

**Tolosa.** Foruen etorbidean guztiz berritutako etxebizitza salgai. Ikusteko modukoa!

**Tolosa.** San Frantzisko ibilbidean 120 m<sup>2</sup>-ko eraikuntza berriko etxebizitza

salgai.

**Tolosa.** Trinkete. Garajea alokairuan.

**Tolosa.** Pablo Gorosabel. Taberna alokairuan.

**Tolosa.** Pablo Gorosabel. 40 m<sup>2</sup>-ko bulegoa alokairuan.

**Tolosa.** Usabal. 2.000 m<sup>2</sup>-ko pabilioi industriala alokairuan.

**Tolosa.** Guadalupe. Pabilioia, 228 m<sup>2</sup> beheko aldean eta 148 m<sup>2</sup> goikaldean. Prezio interesgarria!

**Villabona.** 24.400 m<sup>2</sup>-ko lursaila eta 140 m<sup>2</sup>-ko borda.

**Zizurkil.** Eraikuntza berriko 640 m<sup>2</sup>-ko pabilioia. 9 metroko altuera.

Kamioientzako 2 sarrera, bulegoak, komunak, aparkalekuarekin...

Harpidedunei banatua ▶ 2006ko martxoaren 7a, asteartea ▶ IV. urtea

## AGENDA ▶

### DEIALDIAK

**Amasa.** Bertso afaria Amasako Iturrigoxo jatekxan Amaia Agirre eta Aitor Mendiluzeren eskutik. Larunbatean, 20:30ean. Txartelak salgai daude Iturrigoxo jatekxan, 25 eurotan.

**Tolosa.** Eresoinka abesbatzan aritutako kantarietarako bazkaria antolatu dute hilaren 12an, igandea. Informazio gehiago eta izen-ematea 625 70 36 84 edo 677 43 89 49 telefono zenbakietan. 37 euro sartu behar dira Kutxako 2101 0117 12 0125329102 kontu korrontean.

**Tolosa.** Nikaraguaren aldeko Merkatu Txikia, Kultur Etxean. Amaroako auzo elkarteak antolatuta.

### ERAKUSKETA

**Alegia.** Jose Luis Albizuren koadroak. Hilaren 21a arte, Jubilatuen tabernan.

**Leitza.** Manuel Lasarte: *bizitza eta sorkuntza*. Hilaren 26ra bitartean ikusgai, udaltxeko batzar aretoan.

**Tolosa.** Dorleta Ortiz de Elgearen pintura erakusketa Apirilaren 1a bitarte, Aranburu Jauregian.

**Tolosa.** Heriotz eraikiak. Paco Polanen argazki erakusketa. Hilaren 11 arte, Aranburu Jauregian.

### HITZALDIAK

**Zizurkil.** *Mugak hautsi!*, garapen pertsonalari buruzko solasaldia. Ana Errazkinen eskutik. 19:00etan, Atxulondoko kultur etxean.

### IKASTAROKA

**Tolosa.** Sexualitatearen inguruko ikastaroa antolatu dute Berdintasun eta Gazteria departamenduek, 13-17 urte



## Alpinismo ikastaroa antolatu du Oargik

**TOLOSA** ▶ Oargi mendi elkarteak alpinismo ikastaroa antolatu du. Datorren asteburuan izango da, hilaren 10etik 12ra, Hoz de Jacan (Valle de Tena, Huescako Pirinioak, Espainia). Federatuek soilik parte hartu ahal izango dute ikastaro horretan. Saiotei buruzko informazio gehiago nahi duenak 637 83 03 80 telefono zenbakira dei dezake Bertan «dehenbailehen» izena ematea eskatu dute Oargi elkarteok. Argazkian, mendizale bat Pombieko aterpera jaisten, Balaitous eta Palas mendiak ikusten direla. L. MONTES

bitarteko gazteei zuzendua. Maiatzaren 5ean hasi eta ekainaren 2ra bitartean iraungo du. Informazio gehiago eta izen-ematea Kultur Etxean.

### IKUS-ENTZUNEZKOAK

**Belauntza.** *Hindu: un sueño de libertad* proiektzioa. 19:30ean, Kultur Etxean. Ondoren, zuzendariarekin eta Tolosaldea Sahararekin elkarteak kideekin tertulia.

### GUARDIAKO FARMAZIAK

**Gaur**  
**Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.  
**Leitza.** Gimeno, A. Elbarren 52. 112.

### IRRATIA

**Txolarre irratria (107.5, 101.2 FM)**  
11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, agenda, HITZaren errepasoa,

albisteak, elkarrizketak, disko eskainiak...  
18:00-19:00. *Adi guri* irratsaioa, Anoetako Herri Ikastolako DBHko 1. eta 2. mailako ikasleek prestatzen duten saioa.  
19:00-21:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).  
21:00-22:00. *Zaharrak berri*, Irulegi irratiak eskainitako saioa, Arroza Irrati Ekoizpen Zentroaren eskutik.  
22:00-23:00. *Street noise* musika saioa.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariari adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

## GALTZAUNDI ▶



**Albizkaria.** Galtzaundi.  
**Zenbakia.** 230.a (2006ko otsailaren 21a).  
**Orrialdeak.** 28.  
**Tirada.** 5.000 ale.  
**Gai nagusia.** Kike Amonarriz, Mihiluze.  
**Beste gaiak.** *Sua* filmaren grabaketa, Anoetako musika taldea, Tokiko Agenda 21, Hirukide ikastetxeko kartak eta aztiak Inauterietako prestaketetan...  
**Argitaratzailea.** Galtzaundi Euskara Taldea.  
▶ Nafarroa etorbid., 6-behea.  
▶ 943 65 50 04  
▶ galtzaundi@galtzaundi.com  
▶ www.galtzaundi.com

## AIURRI ▶



**Albizkaria.** Aiurri.  
**Zenbakia.** 251.a (2006ko otsailaren 24a).  
**Orrialdeak.** 28.  
**Tirada.** 2.500 ale.  
**Gai nagusia.** 2006ko Inauteriak.  
**Beste gaiak.** Aiztondo klasikoak, Adunan etxebizitza gehiago, Asteasuko herrigunean eraberritze lanak, Txapel Eguna Zizurkil, Bost Mega enpresari buruz, Gerra Zibilaren inguruko liburua...  
**Argitaratzailea.** Manuel Larramendi Kultur Bazkuna.  
▶ Kale Berria 47, 3. esk.  
▶ 943 69 64 50  
▶ aiurri@topagunea.com  
▶ www.aiurri.com

## AGURRAK ▶



**URTE ASKOAN**  
Irati Elozegi (Zizurkil).  
Ebekoeren partetik zorianak, bihurri!

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza Leitzaan Udaltxeko bulegoa

**hitza**  
agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...